

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



B1 maila

Irakurmen-proba

Idazmen-proba

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Irakurmen-proba	10	20	35 min
Idazmen-proba	15	30	60 min
<b>Guztira</b>	<b>25</b>	<b>50</b>	<b>95 min</b>

2018ko deialdi irekia



ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HADE

B1 MAILA



### Egitekoa

Irakur ezazu testua, eta zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **hitz edo esaldi zati egokiak** aukeratu, testuinguruan duten esanahia kontuan harturik. Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **10 puntu**. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

### —I. TESTUA—

#### Intimitatea

BILBOTIK Gasteizera nentorren, lineako autobusean. Nahiko berandu zen. Kanpoan ilun zegoen, eta autobusaren barnealdekoa ere nahiko giro \_\_\_\_1\_\_\_\_ zen. Batzuk erdi lo zetozen, beste batzuk sakelako telefonoei begira, eta nire alboko gizona eta biok liburu bana irakurtzen geunden, gure gainean zeuden \_\_\_\_2\_\_\_\_ txikiak piztuta. Esan daiteke nahiko giro intimo edo goxoa zela autobusekoa. \_\_\_\_3\_\_\_\_ zen nagusi. Gidariak ez zuen musika jarri, ez zuen irratiko kirol saiorik sintonizatu.

Halako batean, gure atzealdean zegoen emakume batek telefonoa hartu eta lagun bati deitu zion. “¡Hola cariño!”. Bere lehen bi hitzen bolumenak \_\_\_\_4\_\_\_\_ denok. Burua altxatu genuen liburuetatik, sakelako telefonoetatik... erdi lo zetozenek \_\_\_\_5\_\_\_\_ ireki zituzten. Liburutegi batean norbait barre algaraka hasi balitz bezala, halako efektua izan zuten emakumearen lehen hitz gogotsu haiek. “Qué tal cariño, nada, que voy en el bus, y he pensado voy a llamar a Esme, a ver qué me cuenta...”. Elkarrizketa autopistako Aretako sarreran hasi zen gutxi gorabehera. Autopistako Altubeko irteeran oraindik \_\_\_\_6\_\_\_\_ zegoen, eta ez zuen elkarrizketa eten autobusa Gasteizeko lehen semaforoan gelditu zen arte. “Nada, Esme, que ya llego, cuídate guapa, nos vemos mañana”. Ordurako bagenekien denek arropa denda batean egiten



zuela lan, bere nagusiarekin arazoak zituela, poltsa bat erosi berri zuela Bilbon eta Esme bere lankidea zela. Nik, \_\_\_\_7\_\_\_\_, ezin izan nuen eskuetan neraman liburuaren paragrafo bakarra irakurri eta ingurura begiratuta argi antzeman nuen gainontzekoen \_\_\_\_8\_\_\_\_ keinua. Hala ere, elkarrizketa bukatu ondoren, ez zion inork ere \_\_\_\_9\_\_\_\_ esan emakumeari.

Hurrengo egunean, Trumpen irudiak ikusi nituen telebistan. Haren ahotsak eraso egin zidan, eta ez dakit zergatik aurreko egunean autobusean telefonoz aritu zen emakume hura gogoratu nuen. Hura bezala, EEBBetako presidentea ere \_\_\_\_10\_\_\_\_ sartuta neukan. Barne barneraino. Eta haren ahotsa entzun bitartean ezin nuen ezer egin. Ez irakurri, ez pentsatu, ezta lasai egon ere. Zain geratu nintzen pantailari begira.

Karmele Jaio  
2017/01/27 DEIA

—I.TESTUA—

**Aukera ezazu hitz edo forma egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).**

**1**

- a) alaia
- b) iluna
- c) zaratatsua

**4**

- a) asaldatu gintuen
- b) poztu gintuen
- c) alaitu gintuen

**7**

- a) noski
- b) eskerrak
- c) zorionez

**10**

- a) nire intimitatean
- b) nire sakelako telefonoan
- c) bizimoduan

**2**

- a) argitxo
- b) bozgorailu
- c) ilargi

**5**

- a) leihoak
- b) egunkariak
- c) begiak

**8**

- a) lo
- b) haserre
- c) tristura

**3**

- a) Isiltasuna
- b) Zarata
- c) Jendearen zurrunga

**6**

- a) lotan
- b) isilik
- c) hizketan

**9**

- a) isiltzeko
- b) jarraitzeko
- c) ezer



### Egitekoa

Irakurri testua, eta aukeratu erantzun zuzena, bertan esaten dena kontuan harturik.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **5 puntu**. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

## —2. TESTUA—

### Euskaraz hitz egiten badakizu?

“Garai hartan galdetzen zidatenean zergatik hitz egiten zuen amak hain arraro, ez nekien zer erantzun, niretzat normala zelako” azaltzen du Anak. Ana Basaurikoa da eta bere ama Lekeitiokoa. Francoren garaian euskaraz hitz egiten hasi zen, bere etxean hizkuntza hori erabiltzen baitzen. Harrezkero ez dio inoiz euskaraz hitz egiteari utzi eta gaur egun, asko eskertzen dio amari, txikitatik euskara irakatsi ziolako. Txikitako lagunekin, ordea, gazteleraz hitz egiten zuen, bere lagunek ez baitzekiten euskaraz.

Berak dioenez, ahaztuta geratu da euskara kaleetara ateratzen ez zen garaia, errepresio handia zegoelako. “Beldurraren eraginez, nire amak, adibidez, ez zuen euskaraz egiten kalean. Eta nire amak bezala, beste askok eta askok ez zuten euskara erabiltzen, nahiz eta gero etxean euskaraz egiten zuten dena”. Egoera astiro-astiro aldatu egin da. Bilbotar askoren ustez, ordea, euskara ez dago erabat normalizaturik Bilbon eta inguruko herrietan. “Euskara kalean entzuten bada ere, gaztelera baino gutxiago erabiltzen da”. Mari Carmenen ustez, bere kasuan euskarara hurbiltzeko berandu da. Edo hori uste du berak, behintzat. Bere ustez, arazoa Francoren garaian dago: “Francoren garaian ez zegoen euskara ikasteko aukera askorik, eta, jakina, helduagoa zarenean, nagia sartzen da eta zailagoa da ikastea. Ni zaharra naiz, 65 urte dauzkat”. Hala ere, jende guztia animatzen du euskara ikastera. “Nire ilobei esaten diet haiek euskara ikasi dutela eta gehiago erabili beharko luketela, aprobeztatzeko”.

Imanol eta Monica Errenteriatik eta Oiartzunetik etorri ziren orain dela bi urte

Leioako unibertsitatera. Hasieran tristura handia hartu zuten: “Hemen, Bilbon eta Leioan, diferentzia handia nabaritzen dugu euskararen erabileraren arloan”, dio Imanolek. Ikasle hauek ez dira kapaz gogoratzeko noiz hasi ziren euskaraz hitz egiten, beti egin dutelako euskaraz. Bere inguruan arruntena euskaraz egitea da. Bilboko alde zaharrea ibiltzen direnean, euskara gutxi entzutean, pena sentitzen dute, eta kasu askotan ez dute ulertzen zergatik ez den gehiago erabiltzen. “Nire ustez zentzu osoa dauka euskaraz hitz egiteak, azkenean badago hemen jende asko euskalduna izateaz harro sentitzen dena, eta ez dugu ahaztu behar euskara dela euskaldun egiten gaituena. Gure zeregina da euskara defendatzea”, dio Imanolek

Beste pertsona batzuk, ordea, nagusiagotan euskarara hurbildu dira. Rosa da egoera honen adibidea. Berak dioenez, uste baino normalagoa da egoera hau bere adineko jendearen artean. Bere etxean ez zen euskaraz egiten bere gurasoak etorkinak zirelako. Eskolan eta institutuan dena ikasi zuen gazteleraz, baina berak, 25 urte zituela, lanpostu bat lortu nahi izan zuen eta lanpostu horretan euskara jakitea oso garrantzitsua zenez, ez zuen beste erremediorik eduki. “Euskaltegi batean apuntatu nintzen eta han, euskaltegian, hasi nintzen berba egiten. Geroago, euskara maila ona lortu nuen eta lanean hasi nintzen. Gaur egun, bai nik bai nire senarrak euskaraz egiten diogu semeari”.

Eider Nafarrete (Moldatua)  
2016/02/04 DEIA

## —2. TESTUA—

**Aukera ezazu hitz edo forma egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).**

**1. Zergatik ez zuen Anaren amak euskaraz egiten kalean?**

- a) Jendearen ustez, arraro hitz egiten zuelako.
- b) Euskara maila ona ez zuelako.
- c) Garai hartan zaila zelako euskaraz hitz egitea kalean.

**2. Zergatik dio Eider Nafarretek egoera astiro-astiro aldatu dela?**

- a) Lehen ez zegoelako orain dagoen beldurra.
- b) Lehen ez bezala, Bilboko kaleetan euskara entzuten delako.
- c) Egoera linguistikoa erabat normalizaturik dagoelako.

**3. Zergatik hitz egiten du hain jende gutxi euskaraz, Mari Carmenen ustez?**

- a) Jendeari nagia ematen diolako euskaraz hitz egiteak.
- b) Jendea ikastera animatzen ez delako.
- c) Lehen debekatuta zegoelako, eta orain askorentzat beranduegi delako ikasten hasteko.

**4. Zergatik hartu zuten tristura handia Monicak eta Imanolek?**

- a) Ez zirelako kapaz jakiteko noiz hasi ziren euskaraz hitz egiten.
- b) Unibertsitateko ikasketak gazteleraz egin behar zituztelako.
- c) Bilboko kaleetan apenas entzuten zelako euskaraz.

**5. Zer uste du Rosak euskara ikasteaz?**

- a) Ohikoa dela jendeak euskara nagusitan ikastea.
- b) Oso zaila dela, eskolan eta institutuan dena gazteleraz ikasi zuelako.
- c) Etorkinen seme-alabek bereziki zail dutela euskara ikastea.



### Egitekoa

Irakur itzazu testuak, eta aukeratu erantzun zuzena, testuetan esaten dena kontuan harturik.


*Erantzun zuzen bakoitzarekin 2,5 puntu lortuko dira. Denera, 5 puntu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

### —3. TESTUA—

#### Etixerako lanak

Jolasteko eskubidea unibertsala omen da, ume guztiak daukaten eskubidea. Errealitatean, berriz, behin eta berriro ahazten den eskubidea da. Gurasoek nahiz irakasleek haurren eskubide hau ahazten dute askotan: etxerako lanekin, hain zuzen ere. Umeek egunero ia 3 ordu egon behar izaten dute etxean etxerako lanak egiten. Ikasle asko kexatu egiten dira, jakina. Azken aldi honetan guraso batzuek ere esaten dute beren seme-alabek ez daukatela denbora nahikorik jolasteko, eta etxerako lanen kontrako jarrera hartzen ari dira.

Zer iruditzen zaizu gurasoen jarrera hau? Ados al zaude gurasoek esaten dutenarekin?



Fidel:

Nire ustez, etxerako lanak egitea oso ondo dago. Baina baliteke gaur egun etxerako lan pilo bat bidaltzea eta umeez denbora nahikorik ez edukitzea jolasteko. Uste dut, beraz, ez liratekeela izan beharko gehiegi etxean egitekoak. Gainera, umeez kirola edo beste gauza batzuk ere egin beharko lituzkete beren aisialdian.

Bestalde, guraso batzuek beren hurrei etxerako lanak ez egiteko esatea txarto iruditzen zait, etxerako lanekin ere ikasten delako eta, batez ere, umeez ikasiko dutelako zer den esfortzua. Ulertu dezaket gehiegi ez bidaltzeko eskatzea, baina ez nago ados etxerako lanak ez edukitzearekin.

Sonia:

Ezin da ukatu etxerako lanek balio handia dutela umearen heziketan. Baina askotan umeez egin behar izaten dituzten etxerako lanak absurdoak dira. Nire 8 urteko alabak, iaz, egunero kopiatu behar izaten zuen liburu batetik orrialde bat. Nik ez nion zentzurik ikusten ariketa horri eta nire alabak ere ez; beraz, gehienetan ez zuen egin nahi izaten eta arazoak izaten nituen berarekin.

Bestalde, iruditzen zait maisu-maistra askok umeei etxerako lanak bidaltzen dizkietela, eskolan ez dutelako denbora nahikorik behar duten guztia irakasteko. Agian, metodologia eta programak aldatu beharko lirateke eta horrela umeez jolastu ahalko lirateke beren aisialdian.

**1. Zein da Fidelek adierazi nahi duen ideia nagusia?**

- A. Etxerako lanak onak dira, umeari diziplantua izaten irakasten diotelako. Ume batek, eskolatik ateratzen denean, gauza asko egiteko denbora du eta etxerako lanak ere egin ahal ditu. Gurasoen jarrera ere onartzen du, haiekin ados dagoelako.
- B. Etxerako lanak bai, baina ez gehiegi. Etxerako lanez gain, umeez beste gauza batzuk ere egin behar izaten dituzte. Guraso batzuen jarrera ez zaio egokia iruditzen, etxerako lanetatik ere ikasten delako.
- C. Gurasoek esaten duten bezala, etxerako lanak garrantzitsuak dira, beste gauza askoren artean, umeez esfortzua zer den ikasten delako. Gehiegi bidaltzea, ordea, baliteke ona ez izatea.

**2. Zein da Soniak adierazi nahi duen ideia nagusia?**

- A. Soniaren ustez, kasu gehienetan etxerako lanak ondo daude, eskolan egiten denaren errefortzua direlako eta oso garrantzitsuak direlako umeez ikas dezaten. Bere alabak egiten zituen kopiaketak adibide ona dira.
- B. Etxerako lanak ez dira beti izaten hain garrantzitsuak eta hain beharrezkoak. Batzuetan sistemak dauden akatsak ezkututzen dira haien atzean. Irtenbidea, akaso, hezkuntza sistemaren gauza batzuk aldatzean egon daiteke.
- C. Bere alabarekin gertatzen zitzaion bezala, guraso gehienek arazoak izaten dituzte seme-alabekin etxerako lanak egin nahi izaten ez dituztelako. Hala ere, Soniaren ustez, etxerako lanak oso garrantzitsuak dira ume baten heziketan.







**B1 maila | Idazmen-proba**



### Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta, ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

### Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxieneko hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 140 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **60 minutu dituzu.**

### Ebaluazio-irizpideak

B1 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

#### Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

#### Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

#### Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

#### Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

#### Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

## 1. gaia: Ume sedentarioa duzu

### Egoera:

Zure lagun bat kezkatuta dago: Hamar urteko alabak/ semeak egun osoa pasatzen du kontsolarekin jolasean. Lagunak umeak kirola egitea nahi du, baina ez du lortzen. Zure seme-alabak kontsolarekin jolasten ziren eta kirola ere egiten zuten, txikiagoak zirenean.

### Egitekoa:

**Kontatu** zure esperientzia lagunari. **Azaldu** umeentzat kirola egiteak dituen alde onak eta sedentarioa izateak dituen alde txarrak. **Eman** aholkua.

**Idatziz erantzun** (mezu elektronikoa edo gutun pertsonala). Gutxienez, **140** hitz idatzi behar dituzu.



## 2. gaia: Gazte bat etxean hartu

### Egoera:

Udalaren Euskara Patronatuak zure lagun bati aukera eskaini dio euskara ikasi nahi duen gazte atzerritar bat etxean hartzeko. Egonaldia uda osorako da. Zure laguna zalantzan dago, ez daki zer egin. Zuk iaz Finlandiako gazte bat izan zenuen etxean.

### Egitekoa:

**Kontatu** zure esperientzia. **Azaldu** horrelako gazteak etxean hartzeak ematen duen poza eta eskatzen dituen ardurak. **Eman** aholkua.

**Idatziz erantzun** (mezu elektronikoa edo gutun pertsonala). Gutxienez, **140** hitz idatzi behar dituzu.



**Zirriborroetarako  
(orrialde hau ez da zuzenduko)**

ZIRRIBORROETARAKO